Erref. kodea: LAF-218-190 [9]

Izenburua: Hainbatetik jasotako lanak:

[Bernoville, Gaëtan]: *Aitzin-solasa. Santa Cruz*

# AINTZIN SOLASA.

Aitzin solasa _ Gaëtan Bernoville, idazlari bipilak frantsesiz egin liburu baliosa, Santa-Cruz-en gainean, ginuke hemen ezarri nahi eskuaraz.

Noi da Santa-Cruz? Denek eskual-herrietan aditu dituzte Karlichten ichtorioak. Santa-Cruz Mendiz haraindiko eskualdun apez bat da: Karlichten gerla denboran, zonbait mutiko gazterekin egin zuen gerla.... HARRIGARRIKO aitzindaria izan zen; liburuak ~~zen~~ erakusten duen bezala. Menturaz nun edo nun badira oraino Santa-Cruz famatuaren "Chicos" etarik bizi. Ahatik ehun urthetan harat doatzi orai. Jainkoaz ~~hekieri~~ ez erran gaizkirik Santa-Cruz-en gainean, Napoleon-en "Grognard" zaharreri beren nagusiaz baino geiago.
Orai jelagek gerla egiten duten joko bertsuan zuen egin gerla Santa-Cruz-ek, bainan hau bere ohiduren eta FEDEAREN salbatzeko ari zen. Gerlan eta presonerrentzat gizona zen.

Gaëtan Bernoville-k chehetasunak, nagusi famatuarekin, beti bizi zirenen ahotik, dauzka. Ainitz zor dio ERRETEITCHIKI Santa-Cruz-en lagunik handienari. Hau otoan ibilia du zerbait guduchka izana den leku guzietan eta Gipuzkano chahar gerthiak, bere eskuara chotil eta pindartsu maitagarrian, berriz biziaraziak ditu gazte denborako ichtorio ezin sinetsiak.

Eskualdun gazte gutik dazkite Santa-Cruz, eskualdun aintzindari famatuaren ~~ichtorio~~ balentriak. Agian ainitzek nahiko dituzte jakin, iduri baitzaut supazter chokoan Aitatchik

kondatu ichtoriek badutela bertze hats-choragarri bat, "Histoire de France"-eko balentria haundienen ondoan.

Ichtorio hau bizia dutenek dute kondatua. Liburu hunen egileak galdatzen baitzion Iguazio Roteta, Santa-Cruz-en konpainian kaporal izana zenari: "Zer pena ikaragarria ukan ahal zinuten, Iguazio, betikotz utzi zinuzten gau hartan!", Iguaziok eman zion errapostu:

"Pena? Jainko maitea!..." Eta nigarrez hupaka hasi omen zen....

## Santa Cruz



<u>Lehen urtheak</u>: Ibarrako mendiartea hertsia balin bada Tolosako ondoan, oraino hertsiago da zonbait kilometra hiritik haratago. Hur erreka bat badabil, zipirt eta zapart, bi busuntsa hesirien artetik ezin ateraz. Bat-batean mendiartea largatzen da eta argizko zelai bat bilakatzen. Bidea, nola zaldi eskutik joana, mendiari gora lotzen da eta harat eta hunat ibili ondoan mendiaren mazelan, galtzen han nunbait...

Tiloska horren erdi erdian, horra Elduayen.

Zonbait etche mendi mazelan daude aztaparka lotuak. Herriaren gaineratekoa han dago bekerean, iduri sekulakotz errekarat eroria. Bidea eliza baino gorago pasatzen da. Soi doia hunen dorrea da ageri. Elizarat sartzeko, eskalera chut chut bati gora behar da joan, eta ez zira beti segur, zangoa finkatzean, atchikiko zaituztela belar basek arraildurik dauzkaten harrizko mailek. Gipuzkoako eliza geienen gisan, hau ere goraia eta largoa da, azkarra, harrizko gaztelu ~~pa~~ baten pare. Hunen harriek buztinaren kolore bera hartia dute. Borta haundiaren aintzinean huna eliza leiorra (kalostrapea). Hor dira pasatzen, herri ezin girichtinoago hortako afera geientsuak; hor dabila buruz gainka, itchulingoka, lasterka eta berdin joka, herriko haur-zarreria guzia; hor du erakusten, bere esku hauntua, pilotan galdu duen pilotariak ~~bu~~ trufan dabilaten laguneri. Pilota plaza elizaren

ondo ondoan da.

Herri galdua, herri hertsia. Mendiak lekerturik dauka eta hain du herbatzen, nun iduri baitu ~~plaza~~ pilota plaza bat pilota chaloin eta errabiatu batek joa; bote eta berriz bote, eskuin eta ezker, zeru alde joaiteko ateka bat chekatzen balu bezala dabilan pilota bat iduri.

Han zen sortu, martchoaren 25 ean, 1842 ean, Manuel Ignazio Santa Cruz y Loydi.

Haren aitamak bizi ziren etchea Elduayeneko trichteenetarik da - Gaicho etchea, erreka zola batean etzana! Bere zimendu, bere pareta erdi emokatu, laparrek leïotaraino hartuek, aski garbiki diote nola den bat lur zakar edo kazkar eta aberats horrekin, nahi balitu bezala vietsi hunen usaia aberats bezein nekosak. Etche zahar horren inguruetan zituen Manuelek, bere herriko bertze laborari gaztek bezala, bere lehen urtheak iragan. Lanean ari zen alorretan, bainan ardura bazabilan, chendraz chendra, errauts airatzen, lurra joz bere espartin muturraz. Zonbatetz aldiz oraino ez du, iguzki betean, ortz karraska zariola, egin izigarriko pilota partida bere heineko lagunekin!

Arras gazterik galdu zituen Manuelek bere aitamak. Bere osaba, Elduayeneko komentuan baitzuen fraile (denbora berean erretor zen), hunek hartu zuen berekin. Arras seriosa eta pausukoa zela ikusirik, semenariorat nahi ukan zuen igorri segidan. Latin pochi bat erakutsi zion eta erlisioneaz arras funtski hasi zuen eskolatzen. Eskualdun haur ttikiak sendi zuen bere baitan sortzen eta azkartzen



beti iraunen duten gauzen gustua. Bere arrazakoak bezala jokaria zitaiken eta mendi gainetan zipoteka zabilan eta hek bezala denak Jainkoaren eskutik hartzen zituen. Hemeretzi urthetan zen sartu Vitoriako semenarioan.

Bere erresuma ttipiak jada arras beretua zuen. Saindika beteak zuten udazkenean ilhun nabarreko aize hego urdin balusak, uduko gauaren ichiltasun, ezkilak dorretik trichteki noizbenka ernarazten duenak, agorrileko eguerdi pizu, esparen iplinu trichteez beteak. Bainan herri horrek, iguzkiz brokaturik balin badago ere, ez du Méditerrane-ko eskualdeak daukan guri edo bano hura. Itsasoa ez da urrun eta hunen hats gachtoa hor gaindi dabila ardura, neguko tenpesten kalapitak sendo bezein iraunkor, oiharzunak ekartzen ditu horraraino. Itsasotik jali aizeak, peña kozkorrak arraskatuz, plegatzen ditu sablé gainetan atera belar mehar·rak eta iragan ondoan urriak kuzi zelai dorpeak, sartzen da ero bat iduri mendi gorenen artean. Aizeak ditu ekartzen mendiarte gorenetaraino hegaztin zuri haundi batzu. Mendia behera hura turrustan abiatzen da eta erreka beheiti laster lekutzen. Itsaso kechuaren hurbiltasunak, neguan mendi mazela horietan herrestan dabiltzan lano chehakatuek, bazter horiek beren buluzian daukaten halako efurtur eta bortitz horrek, egiten dituzte gizon batzu nahikunde izigarri batez dohatuak. Kasu! Nahi ukaitea zer den dakiten

gizon horieri!
Herriko menditarrak iduria izan zen
Santa Cruz bere haur denboran. Zurrak berekin
oratu zuen, bere dorpe hartarik zerbait pasatu zion.
Erlisioneak eta ohidurek moldatu zituzten haren
bihotzaren ichkin guziak. Erlisionea, familia, ba-
-kotchari doakon norbaitasun ezin hunkituzkoa,
horra zerk zituzten, sortu zen ondutik, Santa Cruz-en
biziko harat-hunat guziak ibili. Hiru gauza erres-
-petatu, maitatu, egin ahala guziez sanorik zain-
-du horientzat da, ethum eskual herrietan bizitzen eta
hiltzen. Eta atchikimendu hori, hiri haundietan
beretan atchemaiten da, Iruñetik eta Tolosaraino, Za-
-rauz-tik eta Vera-raino. Arramantza geienik egiten
den egunak berak halako serios batek hartiak
daude. Alta iguzkiak berotzen du nola zeru afri-
-kano batetik. Leiotan churiketak zinpi zanpa
dabiltza aizeak, banderak iduri. Jendea allar-
-matua da eta tropan, elgar pusatuz, karrika
hertsietan goiti badua. Zainetan bibibuilaka
dabila odol gazte bat arraroa! Bozak bero eta
ochen, beharriak lerden, emazteak eder, hain eder,
San Antonio bat bera desespera bailezakete! Biz-
-kitartean ohidura chahar, mendiak bezein chahar
batek nahi duen bezala, mutiko eta nechkato
gazteak berech daude jende tropa horren artean.
Plazaren gainean, ezkont-gaiak pausuki dabiltza
harat hunat; badakite amaiarreak (belles-mères)
leio artekatik beha daudela.
Gazteria alegera hori gaizkitik Jain-
-koaren beldurriak du begiratzen. Santa Cruz-en


bihotza ere bere natikunde eta sendimendu gordee-
-taraino jainkozko ohidura horietaz da moldatua.
Vitoriako semenaricht gaztea gipuzkano garba
zen. Ttikitik esnearekin batean churgatu biziaren
gordin hatsak egina zuen hartarik haur hezur-
-tsu eta gordin bat eta Semenarioan haunditzen
ari zen, lana edo eginbidea, ebanjelioak
dion bezala, denen zimendu.
Manuel Santa Cruz adimendu gait-
-zikoa zen. Semenarioan hoberenetarik zen. Hiru le-
-hen urthetan "meritissimus" aipamena ukan zuen.
Orduan hoberenek bezala, beharra zen eskolarik gach-
-toenetan pasatu. Bizkitartean hirugarren urthea
akabatzean eritu zen eta ichtudioak behar ukan
zituen laburtu. Sinest ahala bada, bainan hoin-
-bertze urrats, gelditu gabe, gau eta egun, edo-
-zoin denborarekin ibili beharra zen gizon hori,
medikuek bularretarik galdua zaukaten,
semenarioa finitzean. Aize erauntsien seme,
peña kazkar gorenetan zipoteka ibiltzen usatu
horrek hertsi atchemaiten zituen semenarioko
lau murruak eta haren bularrek beren lana
egitekotz bertze aire bat nahi zuten. Bere gan-
-barako leiotik usu begistatzen zituen, halako
chimiko bat bihotzean, zoin lehenka, zeru gor-
-din urdinean, ari ziren lano erresta urosak.
Beraz behar ukan zituen bere ichtudio, hoin lo-
-rioski hasiak, laburtu, joaiteko aire sanoa an-
-sarki atchemanen zuen herri batetarat.

1886 ean bere lehen meza eman zuen. Berehala Hernialden eman zuten bikario.

Semenarioan iragan urtheek haren fedea azkartu eta aberastu zuten; hil artino, eta malur haundienen biharamunean, fede azkar, arroka haren gainean, du bote eginen, berriz partitzeko. Haritzarentzat erroa dena, da eskualdunarentzat fedea; eta Santa-Cruz-ek teologiako eskoletan bazuen ikerturik ainitz choko, gizonaren adimenduari emaiten dakotenak munjala, betiereko gauzak igurikatuz. Laborariak konprenituko ditu nehok baino hobeki, hetarik bat delakotz beti, eta zerbitzatzen ahalko ditu, hek baino eskuigain geiago baitu bildurik.

Hernialden, zer atchemaiten du? Bere mendia eta bere lagunak. Hernialdeko bikarioa eta Elduayen-eko haur, laborari semea, berak dira, lehen horrek saindutasun ~~[illegible]~~ eta jakitate geiago bakarrik. Bere haur denborako bizi airos eta Chuhurra derama beti. Sotana bat ez balu nork erran ez dela hura artzain bat edo kontrabandicht bat?

(Segida gero)

FSC
MIXTO
FSC® C001636